



## Ale honetan

Aurkezpena 1

### IKasgela irekia

*Belen Benitez, Ainhoa Gaintza*

Aisa, etorkinak euskarara hurbiltzeko atea 3

*Itziar Landa*

Etorkinak Zarautzen euskara-ikasle 14

### Ikerketak

*Josu Perales*

Gaitasun komunikatiboa ebaluatzen: mintzamena eta idazmena 21

### Bestelako lankidetzak

*Iñaki Unibaso*

Autoikaskuntza-zerbitzua euskara ikas-irakasteko (eta II) 41

### Euskararen kutxa

*Mitxel Kaltzakorta Mentxaka*

Galdegai-lekua testu osoetan 61

### Beste Iturrietatik

*Roz Comins*  
*Zhaonong Han*

Ahotsa, zaindu gabeko funtsezko elementua 80

Feedback zuzentzailea berriz planteatzen hizkuntz irakaskuntza komunikatiboan 87



# HIZPIDE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA



## HARPIDETZA-ORRIA

Izen-deiturak:

Kalea:  Zenbakia:

Herria eta Pk:  Probintzia:

**Hizpide aldizkaria jaso nahi dut etxean. 2004an hiru ale:  
11,78 €. Honela ordainduko dut:**

Kontu korronte bidez

Bankua edo Aurrezki-Kutxa:

Sukurtsala:

Zenbakia:

Transferentziaz (Kutxa 2101.0381.01.0003069002)

HABEren izenean luzaturiko txkekez

Errenboltsoz



**Helbide honetara bidali behar da:  
HIZPIDE aldizkaria  
Vitoria-Gasteiz, 3  
20018 Donostia**

Formulario honetako datuak fitxategi automatizatu batean bilduko dira, HABEK aldizkaria jasotzeko eskabideak kudeatu ahal izateko. Fitxategi datuetara sartzeko, datuak aldatu edo deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, HABEra jo dezakezue. Vitoria-Gasteiz kalea, 3-6. 20018 Donostia.



# Aurkezpena

Hauxe duzu, irakurle, Hizpide aldizkariaren 56. alea. Hel diezaiogun mamiari.

*Ikasgela irekia.*– Bi artikuluk osatzen dute atal hau. Lehenengoaren izenburua: “AISA, etorkinak euskarara hurbiltzeko atea”. Belen Benitezek eta Ainhoa Gaintzak idatzi dute. Makina bat etorkin ditugu jadanik gure artean munduko bost bazterretatik etorriak. Eta bada horien artean euskara ikasi nahi duenik. Eskari horri erantzuteko, AISA izeneko ikas-materiala prestatu dute artikulugileek eta horiexen eskutik, hain justu ere, izango dugu parada haren nondik norakoen berri jakiteko.

Bigarren artikulua estu loturik dago lehenengoarekin. “Etorkinak Zarautzen euskara-ikasle” da izenburua. Eta AISA materiala ikasgelan etorkinekin erabili dutenen esperientziaren berri ematen da. Artikulua Itziar Landa euskara-irakasleak idatzi du.

*Ikerketak.*– Gero eta menta handiagokoak dira gaitasun komunikatiboa zer den eta horren osagaiak nolakoak diren azaltzea xede duten ereduak. Eredu horiek azken bi hamarkadotan eraiki dira eta biziki eragiten diete hizkuntzen irakaskuntzari eta horien ebaluazioari. Artikulu honetan, eredu horiek aztertzeaz gain ebaluazioari begira dakartzaten ondorioei ere labur erreparatuko diegu baita alfabetatze-euskalduntzearen ikuspegitik ere. Artikulua izenburua “Gaitasun komunikatiboa ebaluatzen: mintzamina eta idazmina” da eta egilea Josu Perales.

*Bestelako lankidetzak.*– Hona hemen aurreko alean Iñaki Unibasok plazaratu zuen artikulua segida eta amaiera “Autoikaskuntza-zerbitzua euskara ikas-irakasteko (eta II)”. Lehenengo partean, egileak jorratu zituen Autoikaskuntzaren oinarri teorikoekin batera, helburu orokorrak, ezaugarriak, norentzakoak, erabilera-motak, giza baliabideak eta azpikigitura. Oraingo ekarpenean oso aintzat hartzea merezi duen atala jorratuko du Iñaki Unibasok: materialak. Horrekin batera, osagai guztien arteko eraketa ere izango du langai. Eta hainbat fitxa-eredu ere eskainiko ditu.

*Euskararen Kutxa.*– Artikulu-sorta mamitsua ari zaigu eskaintzen Mixel Kaltzakorta irakaslea. Aurreko bi aleetan, 54. eta 55. zenbakietan, hurrenez hurren, “Galdegai-lekua testu hastapenetan (I)” eta “Galdegai-lekua testu hastapenetan (eta II)” irakurri ahal izan genituen. Orain, oster, egileak aztertu gura luke, eta artikulu bitan aztertu ere, zer kokaleku hartzen duen galdegaiak testuetan, perpaus guztietan, dela ahazkoetan dela idatzikoetan.

*Beste iturrietatik.*– Ezinbesteko tresna du hizkuntz irakasleak bere aho-tsa, zaindu beharrekoa ezberrik gabe. Roz Comins artikulugileak hel-

duentzako eta unibertsitateko hezkuntzan lan egin du eta, halaber, aktore profesionalak trebatzen. Ikasleek biziki estimatzen dute, ongi ahoskatuz, argi eta ozen hitz egiten dion irakaslea. Roz Comins-ek hainbat eta hainbat iradokizun eskainiko ditu ahotsaren inguruko gorabeheri erreparatzeko.

“Feedback zuzentzailea berriz planteatzen hizkuntza irakaskuntza komunikatiboan” Zhaohong Han Columbia unibertsitateko irakasleak idatzi du. Hainbat eratarik ikusi da feedback zuzentzailea H<sub>2</sub>ren irakaskuntzaren historian. Izan ere, hizkuntza ikasgelan zer eta nola zuzendu behar den inoiz ere amaitzen ez de eztabaida-gai horietako bat da. Zhaohong Han irakasleak jorratuko ditu ikasgelan benetan gertatzen den feedback zuzentzaileari lotutako gaiak, hala nola irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren arteko uztardura, irakaslearen egokitzapena, eta, outputaren hobekuntza. Hainbat ohartarazpen pedagogiko ere eskainiko ditu, H<sub>2</sub>k irakasleon kezka praktikoa nagusia diren bi gairi buruz: nola areagotu feedback zuzentzailearen eraginkortasuna ikasgelan eta nola integratu feedback zuzentzailea hizkuntza komunikatiboan lorpenak handitzeko.

Honenbestez, bada, 56. alearen mamia. Hizpidek probetxuzkoa izan dakizula opa dizu.